

# Euskararen Erakunde publikoaren aurkezpena



*2007ko azaroaren 8an*

## **Euskararen Erakunde Publikoaren sortzea : euskararen aldeko hizkuntza politikaren pixkanakako eraikuntza prozesu baten emaitza**


- Euskal Herria 2010 lurralde prospektiban (1992/93), euskara eta euskal kulturaren kontutan hartzea
- Hizkuntza antolaketa Euskal Herriko Garapen Eskema, lurralde egitasmoaren barnean sartzen da (1997)
- Euskal Herriko Hitzarmen Berezian (Estatu-Eskualde arteko Plan Kontratuaren bilakaera bat) Hizkuntza politikarentzat berezko sail baten onartzea (2000)
- Hizkuntza politikarako Obragintza Publikoaren sorrera (2001) (Instituzioak euskalgintzan diharduten eragileak laguntzeko egitasmo hitzartu baten inguruan elkartzen dira)
- Botere publikoak biltzen dira eta Euskararen Erakunde Publikoa (EEP) sortzen dute (2004) (Interes Publikoa duen Egitura gisa)

Erakundearen estatutuen 2. artikulua :

« Erakundearen eginkizunak hauek dira :

- Euskararen aldeko hizkuntza politika publikoa eta hitzartua asmatzea, definitzea eta obratzea .
- Behar diren finantza baliabideak bermatzea, bere egitasmoan ezarri dituen ekintzak edo obralari batzuekin hitzartu dituenak gauzatzeko .»


## Botere Publikoentzako tresna amankomuna



### 11 pertsonek ordezkatzzen dituzte Erakundeko 5 kideak

- **3 Estatukoak** : Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Prefeta, Bordeleko Akademiako Errektorea, Kultura Gaietarako Eskualdeko Zuzendaria (Akitania)
- **3 Akitaniako Eskualde Kontseilukoak** : Lehendakariaren ordezkaria + 2 hautetsi
- **3 Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusikoak** : Lehendakariaren ordezkaria + 2 hautetsi
- **1 Euskara Sustengatzen duen Herriarteko Sindikataren ordezkaria** : Lehendakaria edo honen ordezkoa
- **1 Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluko ordezkaria** : Lehendakaria edo honen ordezkoa

## EEPko aitzinkondurako kideen diru ekarpenak



⇒ **2 066 000 euroko aitzinkondua (2007)**

## 2007 urterako aitzinkonduren banaketa

Egituraren ibilmolderako gastu orokorrak (7 pertsonako lan-taldea) (%20)	Elkarteei emandako diru-laguntzak (%50)
	Material pedagogikoaren ekoizpen eta argitalpena (%15)
	EEPk eta eragile publikoek buruturiko egitasmoentzako (%15)

## AHOLKU BATZORDEA

- 1) Hezkuntza sistemako eragileak : antolakunde sindikalak, Ikuskaritza sailak, pedagogia aholkulariak, guraso, formakuntza egiturak, unibertsitariak ...
- 2) Hizkuntza eremuko eragileak : euskararen promozioan ari diren elkarte edo eragile publikoak : hedabideak, aisialdia, argitalpena, helduen irakaskuntza ...
- 3) Adituak : soziolinguistikan adituak, ikerlariak ...

⇒ Aholku Batzorderen helburua : eragile ez instituzionalak hizkuntza politika publikoaren bideratzeari elkartzea



## 2005/2007 epean eramandako lan arlo nagusiak

- Hizkuntza Politika Proiektuaren definitzeak hizkuntzaren eragile anitz mobilizatu du hainbat hilabetez. Egin-molde parte hartzaile baten bidez, 2006ko abenduan Hizkuntza Politika Proiektu baten onarpena eman da.
- Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren egituratze eta garapenerako epe luzeko programazioa 2005eko urrian onartu da eta honen obratzea 2006ko sartzetik abiatu da.
- Euskara teknikarien sare bat garatzen ari da pixkanaka, tokiko aginteekin partaidetzan, euskararen promoziorako animazio lan baten segurtatzeko herrietatik ahal bezain hurbil.
- Euskal Autonomia Erkidegoarekiko partaidetza garatu da eta lan hitzarmen berria izenpetu da Euskararen Erakunde Publikoa eta Eusko jaurlaritzako Kultura Sailaren artean 2007ko otsailean.

# Hizkuntza Politika Proiektuaren definizioa



*2007ko azaroaren 8a*

## Obratu beharreko hizkuntza politikaren definitzea

- EEPren 2006ko lehen eginkizuna bete da Hizkuntza Politika Proiektuaren osatzearekin

2006ko abenduan, botere publikoek egiazko hizkuntza politika proiektu bat onartzen dute, helburuak, estrategia, norabideak, ekintza programa eta jarraipen adierazleak finkatuz .

Proiektu honek heldu diren lau urteentzat Euskararen Erakunde Publikoaren lan esparrua finkatzen du : azterketa soziolinguistiko batek ondorioztatzen duen helburu nagusitzat hartzen du hiztun osoen kopurua emendatzea, horretarako lehenetsiz belaunaldi gazteak.

HIZTUN OSOAK HELBURU,  
HAUR ETA GAZTEAK LEHENTASUN

Proiektuaren oinarrizko lema da hau, lan honen egiazko iparrorratza, egitasmoaren egituratzea eta gauzatzea norabidetzen dituen .

## Ibilmolde partehartzailearen emaitza

**EEPko Aholku Batzordearekin bi elkarraditze une antolatu dira:**

- **Hamar bat bilkuratako lehen saio bat, ehun bat pertsonen parte hartzearekin eta hizkuntzaren eragileekin, egitura publikoetako teknikariek edo adituekin hainbat topaketa, 2006ko uda arte, lekukotasunak, ikusmoldeak eta proposamenen biltzeko balio izan dutenak.**
- **Aitzin proiektuaren aurkezpena eta 2006ko urrian Administrazio Kontseiluaren onespeneraren ondotik, hogoi iruzkin formalizatu eta EEPri helarazi zaizkio. Guziak aztertu dira eta egitasmoaren azken bertsioa, hauekin aberastua, egokitua edo zehaztua izan da.**

## Proiektuaren eraikitzearen oinarrian dauden

## soziolinguistikako printzipio batzuk

### 1/ Hizkuntza baten ikaskuntzan, oinarrizko 3 eragile :

- **motibapena :** hizkuntza baten ikastera bultzatzen duten zergatiak, gutiziak, interesak
- **ezagutza :** hizkuntzaren menperatzea, eta honen funtzionamenduaren ulertzeko ahalmena
- **erabilpena :** hizkuntzaren baliatzearen egintza, hizkuntzak gizartearen baitan dauzkan funtzio guzietan

## Proiektuaren eraikitzearen oinarrian dauden

## soziolinguistikako printzipio batzuk

**2/ Bi hizkuntza ikaskuntza mota, alderantzizkoak diren 2 prozesuren bitartez lortuak :**

- **lehen ikaskuntza, berezkoa :** hizkuntza entzutearen bitartez  
→ haurraren kasua

**ERABILPENA** ⇒ **EZAGUTZA** ⇒ **MOTIBAPENA**

- **bigarren ikaskuntza, berantiarra :** hizkuntza ikastearen bitartez  
→ adin batetik goiti  
→ helduaren edo nerabearen kasua

**MOTIBAPENA** ⇒ **EZAGUTZA** ⇒ **ERABILPENA**

↳ **Ikasteko baldintza :** maila bakoitzean hein nahikoaren erdiestea, ondoko mailara pasatzeko gisan

## **Kokatzen den testuinguru soziolinguistikoa kontutan hartu behar duen proiektua**

### **1/ Hitzun kopurua apaltzen ari :**

- **69 000 hitzun 1991an (jendetzaren %33a)**
- **56 000 hitzun 1996an (jendetzaren % 26,5a)**
- **54 500 hitzun 2001an (jendetzaren % 25a)**

↪ **kasik 15 000 hitzun gutiago 10 urtez**

↪ **seguraski gelditua ez den galtze prozesua,  
jendetza euskaradunaren artean 65 urtetik  
goragokoen kopurua ikusirik**

## Kokatzen den testuinguru soziolinguistikoa

### kontutan hartu behar duen proiektua

2/ Halere, galtzeko joera moteltzen hasia da, gazteen artean :

	65 urtetik gorakoak	46 - 64 urte	30 - 45 urte	16 - 29 urte
Euskara ongi edo aski ongi mintzatzen dutenen heina	% 37	% 29	% 21	% 22



irakaskuntza  
bidezko  
transmisioaren  
lehen ondorioak

↳ Eskola bidezko transmisioarekin egun, biharko familia bidezko transmisioa bultzatu



## Hizkuntza politika proiektu bat :

- Oinarrizko helburu baten eta lehentasun baten arabera egituraturik

### *Oinarrizko helburua*

↪ **hiztun osoak**

### *Lehentasuna*

↪ **haur eta gazteak**


- 4 mailatan eraikirik

↪ **12 erronka nagusi, helburuaren arabera 3 familiatan sailka daitezkeenak**

↪ **Hizkuntzaren transmisioa**

↪ **Hizkuntzaren biziaraztea**

↪ **Hizkuntzaren indartzea**



- 12 erronka nagusi hauen arabera, proiektuak norabidea finkatzen duten **orientabide estrategiko** zenbait definitzen du, (2 edo 4 erronkaka, bakoitzaren deklinabidearekin), jarraitu beharreko bideak.
- Finkaturiko norabide bakoitzari, **lan ardatz batzuk dagozkie**, egitasmo eta ekimen sail bat zerrendatzen dutenak, martxan ezarri beharreko proiektuak, hautatu den norabidean aitzinatzeko gisan. Azken hauetako zenbait EEPk zuzenki eramanen dituen ekimenetan sartuko dira. Beste batzuk eragile publikoek, elkarteek edo pribatuek bideratuko dituzte, EEPekin partaidetzan.
- Azkenik, bilduma gisa, hizkuntza politika proiektuak ofizialki adierazten du, egitasmoen zinezko bideratzearen neurtzeko, **hainbat adierazle** sortzeko xedea, hizkuntzaren egoerarengan duen eraginaren neurtzeko eta finkaturiko helburuekiko egokitasunaren etengabe zaintzeko.

## 3 mailatako ekimen osagarrien bitartez

### bideraturiko proiektua

- 1) EEPk bideraturiko ekimenak
  - ↳ Animazio eta egituraketa funtzioak ekimen publikoa baitezpadakoa gertatzen den eremu estrategikoetan
- 2) Tokiko agintek bideraturiko ekimenak
  - ↳ Herri eta Herri Elkargoekin partaidetza tekniko eta ekonomikoak
- 3) Elkarrekin eta eragile publikoek edo enpresek bideraturiko ekimenak
  - ↳ EEPren laguntza ekonomikoarekin obraturiko egitasmoak

# **Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren inguruan buruturiko lanak**



*2007ko azaroaren 8an*

## **Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren eginkizuna, hitzarmen eta zuzenbidezko esparruan kokatua da**

Beste erronka batzuekin batean (hedabideak, lehen haurtzaroa, hizkuntzaren gizarte erabilera, sentiberatzea ...), euskararen eta euskarazko irakaskuntza, hizkuntza politika proiektu honen muinean kokatzen da. Euskararen eta euskarazko irakaskuntza gazte belaunaldientzat euskararen ikaskuntzarako tresna nagusia bilakatua baita gaur egun .

Euskararen irakaskuntzaren eremua estrategikoa izanagatik dihardu bertan EEPk. Batetik Hezkuntza Nazionala bere Administrazio Kontseiluaren parte baita eta diruztatzen baitu, eta bestetik 2004eko azaroaren 26ean Kontseilu Orokorra eta Hezkuntza Nazionalak izenpetu hitzarmena dela medio .

## Hezkuntza Ministerioa eta Kontseilu Nagusiaren arteko hitzarmenak eginkizun bikoitza esleitu dio EEPri :

### 1. Elkarraditzerako dispositibo baten ANTOLATZEA :

- Irakaskuntzako hiru sareetan, euskarazko eta euskararen irakaskuntza eskaintzaren garatzea eta egituratzea HELBURU
- Partaide publikoek martxan jarri beharreko politiken baitan ERAGINEZ
  - Estatuaren eskuduntza eremuan : postuen kudeaketa, irakasleen formakuntza, klase irekitzeak ...
  - Tokiko aginteen eskuduntza eremuan : egoitzak, eskoletako langileak (irakasleak ez direnak)...
  - Eskuduntza partekatuen eremuan : ikas-materialgintza, familien sentiberatzea, eskaeraren neurketa, izen-emate prozedurak ...

### 2. Irakaskuntzaren alorrean hartu orientabideen eta hizkuntza politikako beste eremuen arteko koherentziaren SEGURTATZEA .

## Hitzarmenaren egitura eragile gisa, EEPren eginbeharrak dira :

- Dagoen irakaskuntza eskaintzari buruzko informazioaren hedapena laguntzea;
- Euskarari eta irakaskuntza elebidunari buruzko sentsibilizazio eta sustatze kanpainak antolatzea;
- Euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaeraren aztertzeko inkestak eta iritzi-ikerketak antolatzea;
- Ikaslearen ikasturte ezberdinetan zehar koherentzia, osotasuna eta jarraipena segurtatuko duen irakaskuntza eskaintzari buruzko epe luzeko programazio bat sortu eta proposatzea;
- Oinarri horietatik abiatuz, epe luzeko programazioa gorputzen duen irakaskuntzen karta bat proposatzea : irakaskuntza gune kopurua finkatu eta gune horien kokatzearen hautatzea;
- Epe luzeko programazioan finkatu gune irekitzeak prestatzea, lan hitzartu bat eramanez beharrezko altzari edo lur-eraikin inbertsioetan inplikatuak diren tokiko erakundeekin, sentsibilizazio lan bat eginez familietan eta izen-emate jardunbide egokiak zutik ezarriz;
- Hitzartze esparru bat sortzea euskararen alorrean ari diren elkarteekin, bereziki irakaskuntza elebiduneko hiru sareetako guraso elkarteekin.



« ***Irakaskuntza eskaintzaren epe luzeko programazio bat definitu eta proposatu, eskaintzaren koherentzia, osotasuna eta jarraipena segurta dezakeena, eta horretan oinarrituz euskararen eta euskarazko irakaskuntzen karta bat proposatu*** ". Hau zen dudarik gabe, hitzarmenaren izenpetzaileek Euskararen Erakunde Publikoari esleitu zioten eginkizunetan berritzaileena.

Lan alor hau da, 2005ean, lehentasunetan jorratua izan dena, euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren egoeraren argazki biziki zehatz bat egin izanaren ondorioz, ikasle kopuruka, eskualde geografikoka, irakaskuntza sareka (irakaskuntza Gristinoa, Publikoa, Seaska), irakaskuntza mailaka (eskola, kolegio, lizeo), eredu pedagogikoka (opzioa, oren parekotasuna, murgiltze sistema).

Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren epe luzerako programazioak lehen atal baten onarpena ukan du irakaskuntza **eskaintzaren garapen kuantitatiboari** dagokiona.

- ↳ 2005eko urriaren 20ean, Administrazio Kontseiluak onartu du, 3 printzipio gidaritan bermatuz :
  - Lurraldearen estaldura koherente baten segurtatzea
  - Irakaskuntza maila ezberdinen arteko jarraipenaren bermatzea
  - Familien hautu librearen bermatzea
- ↳ Helburuak eta hauei dagozkion obratze baldintzak definitu dira :
  1. Bigarren mailari dagokionez
  2. Lehen mailako irakaskuntza publikoari dagokionez
  3. Kontratu peko irakaskuntza pribatuko lehen mailako irakaskuntzari dagokionez (Irakaskuntza katolikoa eta Seaska federazioa)

## 1. Bigarren mailako irakaskuntzarentzat (Publikoa, Irakaskuntza Katolikoa, Seaska), eskemak iragarri duenaz :

- Irakaskuntza elebiduna eta murgiltze sistemari dagozkion kopuruen **iragarpena** egin du :
  - Gutxieneko bikoizketa 2010-2011 ingururako (egonkortzea aurreikus daiteke lehen mailetan gaur egun dagoen oinarriari begira).
- Harrera gaitasunaren emendatzeko edo sail elebidun berrien irekitzeko gai izan daitezkeen eskolen **azterketa**, lurralde osoan CM2/6. arteko jarraikortasunaren bermatzeko :
  - Bikoizketa (osoa edo partziala) harrera gaitasunean 10 eskolatan eta beste 8ren sorkuntza, 2010-2011 ingururako.
- Irakasleen formakuntza beharren **azterketa**, heldu diren 5pa 6 urtetako bilakaera honi aurre egiteko gisan :
  - 4 eta 6 postu artean batz besterorero (20 eta 30 postu aurreikustekoak orotarar).

## 2. Lehen mailako eskola publikoentzat, eskemak finkatuak :

- Gune berrien irekitzeko lehentasunak eta jarraitu beharreko urraspideak **definitu** ditu :
  - Herriko Etxeekin harremana sortu da, eskolen azterketa egin eta familien galdetegiak antolatu dira ...

## 3. Elkarte kontratupeko lehen mailako eskola pribatuentzat (Irakaskuntza katolikoa eta Seaska), eskemak finkatuak :

- Diren guneen egonkortzeko eta berrien irekitzeko, partaidetza proposamen konkretuak **formalizatu** ditu :
  - Postuen banaketarako irizpideak, irekitze proiektuentzako laguntza teknikoa ...
- Hezkuntza Ministerioa eta Seaskaren arteko azterketa taula komuna **onarrarazi du.**

## Programazioaren obratzearen bilduma, sare publikoko lehen mailako irakaskuntzarentzat

↳ 2006 eta 2007ko sartzeez geroztik

- 1) Definitutako desmartxa, 35 auzapezei aurkeztua izan zaie, hogoi bat gune potentzialentzat
- 2) 13 familia-inkesta eraman da, sail elebidunen irekitzea aztertzea onartzen zuten Herriko Etxeekin partaidetzan
- 3) Aldi oroz, beren haurrentzako sail elebiduna ireki nahi zuten familien kopurua nahikoa zela adierazi dute 13 inkestek
- 4) 13 proiektuetatik 12 onartu dituzte Herriko Etxeek  
→ 12 irekitze erabaki ditu Akademia Ikuskaritzak

## Programazioaren obratzearen bilduma 2. mailako irakaskuntza publikoarentzat

- ➔ Egoeraren azterketa 4 gunetan : eskualdean diren haur kopuruen azterketa, 2 gunetan familia-inkestak eraman dira eskolako zuzendaritzekin partaidetzan.
  
- ➔ Eramandako 2 inkestetan
  - Irekitzeen justifikatzeko beharrezko kopurua agerrarazi da
  - Bi kasuetan Akademiako arduradunek irekitzeak erabaki dituzte, irakaskuntzaren jarraikortasunaren bermatzeko
    - ❖ BAB eremuan kolegio/lizeoa (2006ko sartzean)
    - ❖ Angeluko hirian eskola/kolegioa (2007ko sartzean)

## Programazioaren obratzearen bilduma irakaskuntza Giristinoko eskolentzat

- ➔ Irekitze proiektu zehatzik ez irakaskuntza Giristinoko arduradunen partetik 2006 eta 2007 sartzeetarako
  
- ➔ 2008 sartzeko prestakuntzak
  - Informazio eta sentsibilizaziorako 3 bilkura egin dira eskoletako zuzendariekin, Irakaskuntza Giristonoko Zuzendaritzarekin elkarradituz
  - 2 inkesta bidean dira lehen mailako 2 eskolatan
  - Inkesta bat bidean da 2 kolegiotan

## Programazioaren obratzearen bilduma Seaska federazioko eskolentzat

Hezkuntza Ministerioa eta Seaskaren arteko hitzarmen-koadro baten prestatzeko lanak bidean dira ondoko puntuen inguruan :

- 1) Esparru juridikoa, eta ikastoletan indarrean dagoen antolaketa pedagogikoen azalpen bat ;
- 2) Lehen mailako postuen banaketentzat kalkulu arau partekatuen definitzea (irakasleen postuak eta zuzendaritza orenak) ;
- 3) Federakuntzako 2. mailako 4 guneentzat, irakaskuntza baliabideen banaketei buruzko kalkulu arau partekatuen definitzea (irakasleen postuak eta zuzendaritza orenak) ;
- 4) Gune berrien irekitzeentzat, urraspide eta egutegien definizioa ;
- 5) Frantsesezko eta euskarazko hizkuntza gaitasunen ebaluatzeko urraspideen definizioa, elkar aditzean obratu beharko dena .



## Irakaskuntzaren eremuan, garai berean eramandako beste lanak

- Ikasmaterialaren ekoizpen dispositiboaren egonkortzea
  - Ikas/Errektoritza/EEPren arteko hitzarmenaren izenpetzea Ikas zentroari zerbitzu publikoko eginkizuna esleituz ikasmaterialaren eremuan
  - Ikasmaterialaren ekoizpenerako egitasmo deialdi publiko baten antolakuntza
- Euskararen eta euskarazko irakaskuntzako hiru sailtako irakasle eta gurasoeri zuzenduriko mintzaldi eta eztabaidak antolatu dira
- MP3 tresneriarekin, helburu pedagogikoa duen esperimentazioa eraman da kolegioetako 600 ikaslerekin
- EBN (Eskolako Bulego Numeriko) baten bertsio elebidunaren egokitze lana bidean da

## 2007ko eginkizun nagusia

↳ Epe luzeko programazioaren 2. atalaren prestakuntza :  
euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren egituraketa  
kualitatiboa

- euskara eta frantsesezko postuen banaketa irizpideak eskola elebidunetan
- Euskararen eta euskarazko irakasleen jatorrizko formakuntza eta formakuntza jarraikia
- Euskara eta beste gaien euskarazko irakaskuntzaren oren kopuruak
- lortu beharreko hizkuntza gaitasunen eta programen definitzea
- ...

## Eranskina :

# Euskararen eta euskarazko irakaskuntza

→ Lehen mailako irakaskuntzarentzat  
emaitzak zenbakitan

<b>Eskola publikoak</b>	<b>2004/2005</b>	<b>2005/2006</b>	<b>2006/2007</b>	<b>Iragarpena 2007/2008</b>
Euskal Herriko 1. mailako eskoletako ikasleak orotara	16731	16832	16821	17221
Elebiduneko ikasleak orotara	3091	3305	3627	4007
Elebiduneko ikasleen proportzioa	% 18,5	% 19,6	% 21,6	% 23,3

<b>Eskola girstinoak</b>	<b>2004/2005</b>	<b>2005/2006</b>	<b>2006/2007</b>	<b>Iragarpena 2007/2008</b>
Euskal Herriko 1. mailako eskoletako ikasleak orotara	6108	6051	6058	6272
Elebiduneko ikasleak orotara	1453	1504	1624	1754
Elebiduneko ikasleen proportzioa	% 23,8	% 24,9	% 26,8	% 28,0

#### **Ikastola**

ikasturtea	<b>Ikasle kopuruak</b>
2004/2005	1387
2005/2006	1404
2006/2007	1462
Iragarpena 2007/2008	1498

<b>Sare guziak</b>	<b>2004/2005</b>	<b>2005/2006</b>	<b>2006/2007</b>	<b>Iragarpena 2007/2008</b>
Ipar Euskal Herriko 1. mailako eskoletako ikasleak orotara	24226	24287	24341	24991
Elebiduneko ikasleak orotara	5931	6213	6713	7259
Elebiduneko ikasleen proportzioa	% 24,5	% 25,6	% 27,6	% 29

Ama eskolak bakarrik

% 30,40


% 31,90

% 35

% 36,10

# Lehen mailako ikastetxeak

## Irakaskuntza publikoa



# Lehen mailako tokiko aginteeetako partaidetzak



*2007ko azaroaren 8an*

Hizkuntza politikaren obratzeak, herri eta herri elkargoek tokiko beharrei erantzuteko dituzten ekimen desberdinak eta gogoetak, EEPk lurralde osoan hedaturiko politikarekin **koordinatzea** eskatzen du, osagarritasuna helburu, **antolakuntza** eta **eraginkortasun** handiagoaren lortzeko.

Helburu honen lortzeko, **tokiko animazio tekniko baten egituratzea** beharrezkoa da, heldu diren urteetan, eremu bakoitzari erantzun egokienaren ekartzeko.

EEPko kide den Euskal Kulturaren aldeko Herriarteko Sindikataren baitan bilduak diren herriak, berez **juntatuak** zaizkio euskararen aldeko politika publikoaren egituratze lan honi.

Baina Sindikataren bidez Iparralde mailako hizkuntza politika baten definizioan duten beren inplikaziotik haratago, herri eta herri elkargoak, aldi berean **eragile potentzialak** dira, beren lurraldeetan politika honen aplikatzerako unean.



Beren eskuduntzan dituzten hurbileko zerbitzuen bitartez, beren ekimenek hiritarren eguneroko biziarengan duten eraginaren bitartez, eta hauek eskualdeko eragile publiko, pribatu eta elkarteengan ukan dezaketen eredugarritasuna dela medio, herri eta herri elkargoak, euskararen babes eta promoziorako hizkuntza politika baten lorpenaren lehentasunezko eragileak dira dudarik gabe.

Esparru honetan kokatzen dira, nahikaria luketen Iparraldeko herrieri, EEPk proposatzen dizkien partaidetzak :

- Edo zuzenean hiri nagusienentzat
- Edo Herri Elkargoen bitartez

EEPk herri eta herri elkargoei proposaturiko partaidetzek, bi helburu nagusi dituzte :

1. Herriko bizian euskararen erabilpenaren bultzatzea (publikoaren harrera, komunikazio dokumentuak, seinaleta, erabakiak ...) eta hauei dagozkien itzulpen beharrei erantzutea (duela 5 urte, Euskal Konfederazioa elkarten konfederazioak bultzaturik abiatutako ekimena)
2. Herri edo Herri Elkargo mailan, euskararen sustapenerako ekimenen abiatze edo segitzea Hizkuntza Politika Proiektuak finkaturiko lan ardatzen arabera .

Helburu bikoitz horren lortzeko, beharrezkoa den animazio lanaren segurtatzen laguntzeko, EEP eta erakundearen arteko hitzarmenak **"euskara teknikari"** baten hartzea finkatzen du, bai eta EEP eta erakundearen arteko Gidaritza Batzordeen sortzea, orientabideen finkatzeko eta teknikariak garaturiko ekimenen jarraitzeko.

Oinarri horretan, sei hitzarmen izenpetu dira jadanik :

Hego Euskal Herri Herri Elkargoa	Hitzarmena 2006/VI/20an izenpetua
Xiberoa Herri Elkargoa	Hitzarmena 2007/I/19an izenpetua
Errobi Herri Elkargoa	Hitzarmena 200/III/7an izenpetua
Garazi/Baigorri Herri Elkargoa Iholdi/Oztibarre Herri Elkargoa Amikuzeko Herri Elkargoa	Hitzarmena 200/III/14an izenpetua
Baionako Hiria	Hitzarmena 2006/XII/21an izenpetua
Biarritzeko Hiria	Hitzarmena 2007/VII/16an izenpetua

↳ 4 teknikari denbora osoz, 2 teknikari denbora erdiz

Herrietan euskararen erabilpenaren bultzatzeko lan hauen ondoan, Gidaritza Batzorde desberdinek, euskararen inguruko ekimen konkretuen garatzeko borondatea adierazi dute, Hizkuntza Politika Proiektuak finkaturiko lehentasunen haritik.

Lehen ekimenek, EEPren kofinantzaketa bat eskuratu dute 2007an.

Adibidez :

- ❖ Herri eta Herri Elkargoetako agenteen borondatez euskalduntzeko formakuntza planak
- ❖ Euskararen eta euskarazko irakaskuntzarekiko sentiberatze kanpainak
- ❖ Haur eta gazteentzako liburu, joko, KD... katalogo baten argitaratzea
- ❖ Eremuko euskarazko eskolentzako animazio proposamenak
- ❖ Haurrentzako liburu/KD baten, argitaratzea

# Euskal Autonomia Erkidegoarekiko partaidetza



*2007ko azaroaren 8a*

→ 1. urratsa (2003 eta 2004) : Partaidetza Protokoloa tokiko agente eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean, hizkuntza politika alorrean

❖ Trukaketa teknikoak

❖ Iparraldeko elkarteei Euskal Autonomia Erkidegotik emandako dirulaguntzei buruzko elkarraditza

→ 2. urratsa (2005 eta 2006) : 2004 bukaeran sorturiko Euskal Autonomia Erkidegoa eta EEPren arteko protokoloaren jarraipena

→ 3. urratsa (2007tik goiti) : Euskal Autonomia Erkidegoa eta EEPren arteko partaidetzazko akordio baten ezartzea, mugazgaindiko kooperazio mailan instituzio arteko partaidetza berritzailea bilakaraziz

↳ 2 ardatz nagusi

**1. ardatza** : EEP eta Eusko Jaurlaritzak urtero **elkarrekin eraman beharreko ekimenen programa** baten finkatzea adostu dute, trukaketa tekniko ez haratago doana

2007an abiatutako lanen adibideak :

- ❖ 1991z geroztik 5 urtero Euskal Autonomia Erkidegoak antolatzen zuen inkesta soziolinguistikoaren antolaketa amankomuna
- ❖ Jarraipen adierazle amankomunen definizioa (irakaskuntzako kopuruak, helduen formakuntzarako kopuruak...)

## **2. ardatza** : Iparraldeko elkarte eragileeri EEP eta EAEren diru laguntzen esleitzeko, urteroko deialdi bakarraren antolakuntza.

- ❖ Bi partaideek elikatu eta EEPk kudeaturiko partaidetza fondo baten sorrera
  - ➔ 1 450 000€ 2007an : EEPk (1 000 000€) + EAEk (450 000€)
- ❖ Txostenen osaketa eta onartze prozedura elkarraditua (irizpideen definizioa, lehentasunen finkatzea ...)
- ❖ Erreferentzia bikoitza : EEPren Hizkuntza Politika Proiektua eta Eusko jaurlaritzako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia



## 2007ko deialdia laburki :

- **54 egitasmo lagunduak** (Aurkezturikoen  $\approx 2/3$ )
- **43 eragile desberdin hunkituak**
- **Izaera eta neurri desberdinetako egitasmoak :**  
Laguntzak 500€tik 275 000€ra doaz
- **Bi orientabide nagusi :**
  - ❖ Jadanik egituratuak diren eragileen laguntzeko nahikundea, egunero euskarazko zerbitzu eskaintza bat bizi arazten dutenak (irakaskuntza, helduen formakuntza, aisialdia, hedabideak ...)
  - ❖ Lan sail berri batzuen irekitzea : lehen haurtzaroko harrera, argitalpena ...